

hartu zuen protagonismo osoa. "Seguruenera ez zuen horrenbeste euririk egin Noeren garaietatik". Ez pentsa, bada, hiperbolea Vocenton asmatu zutenik. Halere, eguraldiak ez zituen gazteak uxatu. "Zuek uste al duzue uholdeak jende gaztea beldurtu zuela? Ezetz ba. Urpeko dantzaldia izan zen hori".

Bi urte ondoren, *Pensamiento Alaves* egunkariak ordeztu zuen aurrekoa, eta, haren ideologia katoliko eta tradizionalistari jarraiki, bertako kronikek erabateko protagonismoa eman zioten jaiaren arlo erlijiosoari. 1939ko kronikan, Espainiako Gerra Zibila bukatu eta Frankismoa ezarri berritan, Hitlerren diskurtso baten gaineko erreakzioak eta behi haragia eskuratzeko errazionamendu-liburuxkei buruzko albistean artean dago San Prudentzioko ospakizunei buruzko oharra.

Orain bai, NO-DOaren ahotsa buruan irakurtzen dira hoberen pasarteak. "Gaur poza adierazi behar dugu, ikustean arabar tradizioa berragertzen, distiratsu". Bukatu dira algarak; mezek eta koro erlijiosoek hartu dute erabateko lehentasuna. Ondoren, Armentia inguruko zelaietako "familia giroko" ospakizuna. Hitzez hitz, "Arabak bere gauzei jarri ohi dizkien sena eta baretasun patriarkala" lagun. "Patriarcal serenidad", aizue, saiatu hori hobetzen.

Handik geroakoak, ezagunagoak dira. Bestela, galdetu adinekoei: lehen eskutik istorio izugarriak kontatuko dizkizute. Guk gure zatia bete dugu, eta ondorio argi bat atera dugu: Tik-Token tximinokeriak egiten ditugu orain, baina, funtsean, jaiak ez dira horrenbeste aldatu, ezta horiek kontatzeko moduak ere. ■■■

Zaindu maite duzun hori

San Prudentzio 2021

ehbildu

© 2021 Duzun Araba



AFA

Bigarrenez, ekitaldi mugatuak

Berez, aurten ez da San Prudentzio eta Estibalziko Andra Mariaren jairik izango, baina erakundeek hainbat ekitaldi antolatu nahi izan dituzte. Apirilaren 27an Ibaiondoko Felix Petite antzokian eskainiko dute erretreta. Musika eta dantza tradizionalekoa izango da ikuskizuna Udaltzaingoa Folklore Akademiaren eskutik, eta Indarra dantza taldearen lankidetzarekin.

Aldundiak antolatutako erretreta, berriz, 21:00etan, Iradier Arenan izango da aurten. Ekitaldi berezia antolatu dute, ikuslerik gabe. *Streaming* bidez jarraiatu ahal izango da. Erretreta deialdiekin batera, musika, euskal dantzak eta danborrada izango dira. Danborrada nagusiari dagokionez, berriz, aurten ere balkoietatik egingo da, 22:15ean.



AMRALDEA

Amurrio eta Oionen, alternatiba bila

Amurrian, jende pilaketak ekiditeko eskatu du Udalak, eta, horregatik, ohiko danborrada eta kaleko bazkariak bertan behera uztea erabaki du. "Erantzukizun kolektiboa" argudiatu du Udalak ospakizun guztiak bertan behera uzteko. Jai egunaren bezperan, apirilaren 27an, danborradaren soinua jarriko dute kaleko megafoniaren bitartez, eta San Prudentzio eguneko goizean zehar musika zabalduko dute herrian. Oionen ere ospakizunak alde batera utzi behar izan dituzte, baina San Bizente ikastolako guraso elkarteak *Apaindu zure balkoia* ekimena abiatu du. Iaz bezala, danborrada balkoietatik egitera deitu dute, larrialdi garaian ere ospakizunak herrian gutxienez leku txiki bat izan dezan.

Barrundiako Udala

Barrundian **EUSKARAZ** bizi bahi dugu!